

## **EUDELEK ETENGABEKO PRESTAKUNTZA PROGRAMA ESKAINIKO DIE POLITIKARIEI, UDAL KUDEAKETAREN ARLOKO ADITUEKIN**

**Urtean zehar izango diren hainbat saioren bitartez, kudeaketa politiko eraginkorragoa eta herritarren premiei egokitua egiteko tresna eta ezagutza egokiak eskainiko dira.**

**Honako hauek izango dira landuko diren arloetako batzuk: Langile Politika krisi garaian, Udal Gobernantza eta herritarren parte-hartzea, e-Gobernua eta e-Administrazioa; Etxebizitza eta Hirigintzako politikak edo Berdintasun Politiken sustapena.**

**Programa zeharkako arloei buruzko saioekin osatuko da, hala nola, udal aurrekontuak osatzea, komunikazioa eta oratoria politikoa eta oposizioaren zeregina udal gobernuetan.**

**Bilbon, 2012ko martxoak 6.** Hainbat ekimen eta tresnaren bitartez, EUDELEK hamar urte baino gehiago daramatza euskal udaletako kudeaketa politikoaren arduradunen prestakuntzaren alde lanean.

Jarduera ildo horretan, arduradun politikoaren prestakuntzarako ikastaro programa bat jarri du abian, udal kudeaketan orientatzeko helburuarekin. Programaren bitartez, kudeaketa politiko eraginkorragoa eta, ondorioz, herritarren premiak aseko dituen aurrera eramateko tresna egokiak eskaini nahi zaizkie parte-hartzaileei.

Horretarako, EUDELEK hainbat interes eremu eta sektore hautatu ditu, eta udal politikaren arduradunei erabakiak hartzeko prozesuan erabilgarriak izango zaizkien ezagutzak eskainiko dizkie. Programaren saioetan landuko diren eremuetako batzuk honako hauek izango dira: Langile Politikak krisi egoeran, Gobernantzaren kontzeptua eta herritarren parte-hartzea, e-Gobernua eta e-Administrazioa;

Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurumena; ekonomia-finantzaren kudeaketa; herritarren parte-hartzea edo Berdintasuna bultzatzea udal politikan.

Bestalde, programa zeharkako arloei buruzko saioekin osatuko da, hala nola, udal aurrekontuak osatzea, komunikazioa eta oratoria politikoa edo oposizioaren zeregina udal gobernuetan.

## **Saioen formatua**

2012ko martxotik maiatzera bitartean izango dira ikastaroak, eta alkateei eta saio bakoitzean landuko diren eremu espezifikoko arduradun diren zinegotziei zuzenduta egongo dira.

Edukiaren arabera, 2, 4 edo 10 ordukoak izango dira saioak, eta landutako arloan adituak direnek gidatuko dituzte. Eduki guztiek izango dute ikuspegi teorikoa zein praktikoa.

## **Adituen eta hizlarien taldea**

Saioetan hizlari jarduteko, landuko diren arloetan bai beraien prestakuntzagatik bai beraien esperientziagatik adituak diren pertsonak hautatu ditu EUDELEk, udalen zerbitzura jar ditzaten beraien ezagutzak eta aholkularitza. Hona hemen programaosatzen duten ikastaro eta aditu aipagarrienetako batzuk:

- **Langileen politika krisiaren testuinguruan. Martxoak 6**  
Rafael Jiménez erakunde aholkulariak, Democracia y Gobierno Local Fundazioaren zuzendari denak, hainbat tresna aurkeztuko ditu krisialdi bati aurre egiteko: egokitze politikak, zerbitzuen nazioartekotzea, etab.
- **Oposizio politikoa Udalean: funtzioak, zeregina eta tresnak. Martxoak 8**  
Jesús Cola Zaragozako Probintzia Diputazioko ofizial nagusiak oposizioak udal gobernu sisteman zer zeregin betetzen duen azalduko die parte-hartzaileei.
- **Udal Gobernantza eta Herritarren Parte-hartzea. Martxoak 22**

Gobernantza Demokratikoaren Institutuaren aldetik (GLOBERNANCE):  
Gobernuaren eta gobernantzaren kontzeptua udalaren eremuan aztertuko da.  
Bestalde, herritarren parte-hartzea bultzatzeko teknikak garatzeko  
proposamenak eskainiko dituzte.

- **Jendaurrean eraginkortasunez hitz egitea.** Apirilak 17 eta 24  
Manu Marañón coach eta hezitzaileak hainbat gai landuko ditu: diskurtso  
eragilea, gorputzaren hizkuntza eta ahotsa, beldur eszenikoa, etab.
- **Berdintasuna bultzatzeko giltzarriak udal politikan.** Martxoak 27  
Maru Sarasola aholkulariak berdintasuna modu eraginkorren sustatzeko  
tresnak aurkeztuko ditu: ordenantza, aurrekontuak, egitasmoak, pertsonak eta  
parte-hartzea.

[www.eudel.net](http://www.eudel.net)